

Asisko gutuna

2009ko apirila. 2. printzipioa: Eguneroko bizitza:

barnerantz, umiltasuna.

6. zenbakia

Asis Sarea eguneroko bizimoduan espiritualtasun frantziskotarra ezagutu, partekatu edo bultzatu nahi duten laikoen sare sozial irekia da.

Hil honetan, bigarren printzipioari heltzen diogu berriro: geure eguneroko bizitzan, nor bere barrurantz begira: apaltasuna. Eguneroko bizitzan etengabe jartzen zaizkigu aurrean norberaren zailtasunak eta elkarrekin bizitzeko arazoak. Horiek denak barru-barrutik eta behetik lantzeraz gonbidatzen gaitu printzipio honek, beti geure pobrezia eta mugak gogoan hartuz.

Hau da kontua: funtsezko aukera egitea elkarriketaren, barkamenaren, berradiskidetzearen eta

benetakotasun etiko eta existentzialaren alde, bai Jainkoaren bai geure kontzientziaren aurrean. Azken finean, ebanjelioko eta frantziskotar bizitzako minoritatearen aldeko hautapena egitea.

Printzipio honek, lan pertsonal, etengabe eta konprometitu egitera gonbidatzen gaitu, gertatzen zaigun guztia ikuspegi argitsu hauetatik berrirakurtzeko. Benetan erronka bat da horrela bizitzea. Asis Sarean esku hartzen dugunok erronka hori onartzen dugu.

Gogoetarako gaia

Gure mugak Jainkoari begira

Gizakiok kontraesanean bizi gara. Alde batetik handiak sentitzen gara, autosufizienteak, ustez dena dezakegunak eta dena kontrolatzen dugunak; bestetik jabetzen gara geure ezinaz, eta geure mugatasun konponezinak min ematen digu. Izan gaitzeko zikoitzak eta egoistak, geure segurtasunetik harantz pausorik ematen ez dugunak; baina noizik behin gauza gara maitasun eta heroismorik handieneko ekintzak burutzeko.

Denok mugatuak garela aitortzea ez zaigu asko kostatzen, teoriarik ari garenean. Errealitatean garen garenera iristean, zailagoa egiten zaigu geure mugak onartzea.

Ahal duguna egiten dugu, baina frankotan horretan ere ez dugu asmatzen. Bizitzako dramatan, errudun izateak kateatuta sentitzen gara sarritan, geure arazoaren aurrean irtenbiderik gabe. Eta hor gabiltza erdi eskale geure zamaren pean.

Geure mugatasunaz jabetzeak, geure errealitatearen aurrean hobeto kokatzen laguntzen digu eta apalagoak egiten gaitu; izan ere geure ahulezia ezagutuz hobeki onar baitezakegu bestearena. Geure perfektutasun-eza bakean onartzea, hazten laguntzen digun bidea da, apaltasuna eta esker ona ahalbidetzen dizkigun bidea.

Eta aurrerago joaz: geure ezin osoa, geure larria eta ahulezia, dena, utz dezakegu Jainkoaren eskuetan, eta Hari apalki eskaini. Isiltasunean, geure mugatasunari eman diezaiokegu atsedean Harengan. "Honelakoa naiz ni, Zuk jakingo duzu". Gauzak diren bezalakoxeak izanik ere, senti dezakegu Jainkoak doan barkatzen digula eta nolana ere maite gaituela, Haren maitasuna leiala dela.

Eta Jainkoaren barkamena, geure alaitasunaren iturririk handiena izatera etortzen da. Garena gara, baina geuregan konfiantza eta esker on sakona sortzen da geure-geurea den ahuleziagatik.

Ebanjelioko pasartea: Jn 8, 1-11

Jesus Oliamendira joan zen. Biharamunean, egunsentian, tenplura itzuli zen, eta herri guztia etorri zitzaion. Jesus, eseririk, irakasten hasi zen. Orduan, lege-maisu eta fariseuek emakume bat, adulterioan harrapatua, ekarri zioten. Erdi-erdian ipiniz, esan zioten Jesusi: «Maisu, emakume hau adulterioan ari zela harrapatu dute. Moisesek legean honelakoak harriak hiltzeko agindu zigun; zuk zer diozu?» Galdara azpikeriaz egin zioten, hura salatzeke aitzakiaren baten bila baitzebiltzan. Jesus, alabaina, makurturik, atzamarrez lurrean idazten hasi zen.

Haiek, ordea, galde eta galde ari baitzitzaizkion, zutitu zen Jesus eta esan zien: «Zuetan bekatuak gabe dagoenak jaurti diezaiola lehen harria.» Eta berriro makurturik, lurrean idazten jarraitu zuen. Haiek, ordea, hori entzutean, banan-banan alde egiten hasi ziren, zaharrenetatik hasita. Jesus bakarrik gelditu zen, emakumea aurrean zuela. Jesusek zutitu eta esan zion: «Emakume, non dira salatzaileak? Ez al zaitu inork ere gaitzetsi?» Hark erantzun: «Inork ere ez, Jauna.» Orduan, Jesusek: «Nik ere ez zaitut gaitzesten; zoaz, eta ez egin berriro bekatuak.»

San Frantziskoren testua: Ahol 18,1; 1Er 11,7-12

Zorionekoa, lagun burkoa bere abulezian eroapenez hartzen duena, antzeko egoeran besteak ere bera hartzea nabiko lukeen bezalaxe. Ez bezate marmar egin, ez besterengatik gaizki esan (...). Izan bitez bihozbera, gizaki guztientzat otzantasunez beteak. Ez bezate inor juzga, ez inor kondena. Eta, Jaunak dioen bezala, ez bitez egon besteren bekatuak txikienei begira, baizik eta hausnar bitzate berenak barruko saminaren saminez.

Berdintasunean oinarritutako gizon-emakumeek, beren buruekin eta besteekin eta Jainkoarekin berradiskidetuak, osaturiko gizadi batetaz mintzo zaigu Frantzisko. Horregatik, geure mugak eta besteak onartzera eragiten digu, eta errealismo handiaz gainera, ezagutzen baitu gizakiaren bihotza, eta badaki bihotz hori beti joera txarrek mehatxatua bizi dela: norbere interesak, handinahia eta ospe-irrikak, bestea baino gehiago garelako uste izateak, erresuminak. Horregatik mintzo da ahuleziaz, jasateaz, ez epaitzeaz, geure bekatua bestearena baino lehen ikusteaz; izan ere, hain mugatua den geure egia ikustea baita bestea maitatzen hasteko modurik onena.

Sal 25, 1-9

Jauna, zuregana jasotzen dut gogoia.
Ene Jainko, zuregan dut konfiantza: ez diezadala usteak huts egin! Ez daitezela etsaiak nitaz poztu!
Zuregan itxaron dutenei ez die inoiz usteak huts egingo; bai, ordea, arrazoirik gabe bazterten zaituztenei!
Azaldu niri, Jauna, zeure bideak, erakutsi ni nondik ibiltzea nahi duzun.
Zuzen nazazu, zurekiko leial izan nadin, irakats niri, zu baitzara salbatzen nauen Jainkoa; zuregan itxaron dut etengabe.

Ekarri gogora, Jauna, zeure errukia eta maitasuna: betidanikoak dituzu.
Ez gogoratu, ordea, Jauna, nire gaztetako bekatuak eta nire errebeldiak.
Gogora nazazu zeure maitasunaz, zure ontasunari dagokionez.
Ona eta zuzena da Jauna, eta bidea jakinarazten die bekatuak.
Apalak zuzenbidetik daramatza, bere bidea erakusten die apalei.

Gutuneko azken hitzak

Ez du garrantzirik gure muga eta ahulezien handiak, ez eta gainean daramagun erruaren zamak ere. Hori dena apaltasunez onartuz gero, irekita izango dugu beti bizitzako bidea eta ahal izango dugu behin eta berriz berriro hastea.

2009ko maiatzeko eguneroko ebanjelioa

Egunero Ebanjelioa irakurri nahi duten lagunek, egun bakoitzari dagozkion irakurgaien arabera, hemen dauzkate maiatzeko erreferentzia guztiak:

1 Jn 6,52-59	8 Jn 14,1-6	15 Jn 15,12-17	22 Jn 16,20-23a	29 Jn 21,15-19
2 Jn 6,60-69	9 Jn 14,7-14	16 Jn 15,18-21	23 Jn 16,23b-28	30 Jn 21,20-25
3 Jn 10,11-18	10 Jn 15,1-8	17 Jn 15,9-17	24 Mk 16,15-20	31 Jn 20,19-23
4 Jn 10,1-10	11 Jn 14,21-26	18 Jn 15,26-16,4a	25 Jn 16,29-33	
5 Jn 10,22-30	12 Jn 14,27-31a	19 Jn 16,5-11	26 Jn 17,1-11a	
6 Jn 12,44-50	13 Jn 15,1-8	20 Jn 16,12-15	27 Jn 17,11b-19	
7 Jn 13,16-20	14 Jn 15,9-17	21 Jn 16,16-20	28 Jn 17,20-26	

Oharrak:

Asis Sarearen ezaugarri nagusia da irekia izan nahi duela eta bere asmoa biderkatzea. Irekitasun hau sarean parte hartzen dugun bakoitzari egitea dagokigu. Guztiok biderka dezakegu Asis Sarea, hileroko Gutun hau jasotzera edo hileroko azken ostegunetan 19.30ean, ohiko lekuetan, ospatzen dugun otoitzaldian parte hartzera nor gonbida dezakegun pentsatuz.

Asis Sareari buruzko informazioa hartu nahi izanez gero, edo gutun hau hileroko hartzeko izen emateko, deitu 646-214896 telefono zenbakira edo bidali mezua asissarea@arantzazu.org helbide elektronikora.